

Hiru Urteko Planeko diru-laguntzetarako eskaria

Ibarreko kontzejuak zenbait egitasmo lantzen ari dira Nafarroako Gobernuari diru-laguntza eskatzeko. **Unanuko Kontzejuaren** nahia da herriko bi kale urbanizatzea: Labaderoko eta Pilotalekuko kaleak, hain zuzen ere. Aipatu kaleetan saneamendua berrituko da eta argiteri berria eta zorua jarri.


Dorraoko Kontzejuaren asmoa da kontzejuaren etxe zaharra berritzea. Jakinaenez bezala, ikastaroak kontzejuaren etxe zaharrean egiten dira eta erabiltzaileek hotz handia pasatzen dute. Hori dela eta, diru-laguntza lortuz gero zaharberrituko da etxea.

Lizarragako Kontzejuak, bi proiektu aurkeztuko ditu. Batetik, kontzejuaren etxeko beheko solairua berritu nahi du; bertan izateko idazkaritza, batzarrak egiteko gela, artxiboa, komuna eta itxaroteko gela. Kontzeju etxearen sarbidea ere ezinduentzako egokitu nahi dute, arlanpa eginez. Diru-laguntza lortuz gero, beraz, Kontzejuaren idazkaritza medikuaren etxetik Kontzejuaren etxera lekualdatuko da.

Bestetik, Lizarragan plaza berri bat egin nahi dute eta egitasmoa Hiru Urteko Planera aurkeztuko dute, diru-laguntza lortzeko esperantzarekin. Urtarrilaren 4an batzar bat deitu zuen Lizarragako Kontzejuak plaza berri bat egiteari buruz herritarren iritzia ezagutzeko, eta lizarragatarren iritzia baiezkoa izanenez, aurrera eramango du proiektua. Plaza berria Azi Iturri elkarte eta elizaren parean egonen litzateke eta lau-lau izanen litzateke.



Dorraoko Kontzejuaren asmoa da kontzejuko etxe zaharra berritzea.



Lizarragako plaza berriaren planoa

Nuevos proyectos a presentar

Los concejos del valle están ultimando los proyectos a presentar a la convocatoria de ayudas del Gobierno de Navarra para el Plan Trienal 2009/2012. En caso de contar con la ayuda del Gobierno de Navarra el Concejo de Unanua pretende urbanizar dos calles, la del Lavadero y la del Frotón. El Concejo de Dorrao, por su parte, pretende arreglar la fachada de las escuelas para evitar problemas de humedad en la consulta del médico. Y el Concejo de Lizarraga tiene dos proyectos: la construcción de una nueva plaza y adecuación de la casa concejil.

Ergoienako V. Bira irailaren 27an egingo da




IV. edizioko sarituak Lizarragan.

Urtetik urtera gero eta ezagunagoa da Ergoienako Bira. Hori dela eta, Udala pozik dago lasterketarekin eta aurten ere gonbidatuko ditu korrikalariak parte hartzera. Aurtengoa bosgarren urtea izango da, eta zenbait berrikuntza egiten dira Ergoienako eta Sakanako korrikalarien parte hartzea bultzatzeko. 12-16 urte bitarteko gazteen parte hartzea ere sustatu nahi du Udalak, hori lortzeko gazteentzat erakargarri izan daitezkeen sariak eskaini nahi ditu. Aurreko urteetan egin bezala, bertako produktu ederrekin saritzen jarraitu nahi du Ergoienako Udalak. Aurtengo lasterketak Unanun izango du irteera eta helmuga.

Lehenengo lasterketa 2005ean antolatu zuten eta 69 korrikalarik parte hartu zuten; 2006an, 78 korrikalarik; 2007an 56 korrikalarik; eta 2008an 58 korrikalarik.

La 5ª edición de la Vuelta a Ergoiena ya tiene fecha. Será el 27 de septiembre del 2009 y comenzará y terminará en Unanu.



14. zk.

2009ko ilbeltza

Argitaratzailea:
Ergoienako Udala
Intxorreta z/g
LIZARRAGA 31829
Tel. 948 460 141



NA-1063/2003 Lege Gordailua

Hiru egitasmo berri Ergoienarako

Ergoienako Udalak Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Estatuko Funtz Berezitik gehienez ere 75.397 euro jasoko ditu. Diru hori zertara bideratuko duen zehaztu du udalak eta hiru egitasmoren baldintza plegua onartu du.

Dorraon, eskolako fatxada

Dorraon, eskoletako eraikineko fatxada konponduko da, kontsultategian dagoen hezetasuna kentze aldera. Jakinaenez, medikuaren kontsulta barrutik konpondu da berriki, baina kanpoko hezetasunak barruan kalte egiten du. Hori dela eta, Kontzejuko paretan isolamendua jarri nahi dute.

Unanun, autobus geltokia

Unanun, autobus geltokia eraikiko da herriaren sarreran. Markesinaren azalera 6,8 m2-koa izanen da, 3,5 x 2,5 mkoa. Asmoa da herrira igotzen diren autobusei maniobra egiteko bidea erraztea. Hori dela eta baliteke San Andres kalean dagoen isleta moldatzea. Lanak egin eta gero, non babestu izanen dute autobusen zain egonten diren bizilagunek.

Lizarragan, frontoia

Lizarragako Jai Alai frontoiko paretak margotu eta instalazio elektriko osoa berrituko dute. Energia aurrezteko argiteria jarriko dute, mantenimendu gastua gutxitzeko. Hobekuntza lan horiek segida emanango diote aurreko urtean egindakoari: 2008an kanpoko paretak saneatu zituzten eta zuriz margotu.

Tres nuevos proyectos para Ergoiena

El Ayuntamiento de Ergoiena ha aprobado llevar a cabo tres proyectos con cargo al Fondo Especial del de Estado para la Dinamización de la Economía y el Empleo. Así el Concejo de Lizarraga renovará el alumbrado y pintado de las paredes del frontón. El Concejo de Dorrao



rehabilitará la fachada principal del edificio de las escuelas. Y el Concejo de Unanua construirá una marquesina, donde los vecinos puedan esperar al autobús al resguardo. Ya han sido aprobados los pliegos de condiciones económicas administrativas para la contratación mediante procedimiento negociado de las obras.

eman zure iritzia www.ergoiena.com helbidean

Babes Ofizialeko Etxebizitzak behar dira Ergoienan? Bai? Ez? Zenbat?

Ergoienako Udalak ibarreko gazteen iritzia jakin nahi du. Jo ezazu: administrazioa@ergoiena.com helbidera eta eman ezazu etxebizitzari buruz duzun iritzia.



¿Crees que en Ergoiena hace falta vivienda de VPO?

El Ayuntamiento quiere saber la opinión de la gente joven respecto a la vivienda. Manda tu opinión a este correo electrónico: administrazioa@ergoiena.com

Hiru herriak lotzen dituzten bideak konpontzeko lanak

Excavaciones Olloquiegui, S A ibarreko 3 herriak lotzen dituzten bideak konpontzen eta asfaltatzen ari da. Lanak burutzeko 299.555 euro inbertsioa behar da eta Nafarroako Gobernua-ren diru-laguntza jaso du Ergoienak. Horrela, finantzazioan hiru erakunde ari dira parte hartzen: Nafarroako Gobernua %60arekin, Kontzejuak %20arekin, eta Ergoienako Udala gaintzeko %20arekin. Lanak bi urte-tan burutuko dira, 2008ko urriaz geroztik 2009ko apirila arte, betiere eguraldiak laguntzen badu.

Konpontzen ari diren bideak:

Batetik, Unanu eta Dorrao artekoa, San Adres ermitatik igarotzen dena; bestetik, Unanatik Lizarragara errotatik doan bidea; hirugarrenik, Lizarragatik Dorraora doan bidea; eta, azkenik, Dorraotik Leizara doan bidean San Pedro baselizara arte.

Asfaltoarekin hasi aurretik belar-sastrakak garbitu dituzte, baita bide bazterretako arekak ere. Hormigoizko zenbait bideen kasuan tarte batzuetan hormigoia kendu dute eta lareetara sartzeko sarbideak behar bezala egin dituzte. Bideen zabalera 6 metrokoa izanen da guztira; errepideak 4 metro izanen ditu eta bazterretan areka edo ubidea egonen da, metro bako zabalerekin.

Izurako aska

Izurako sastraka eta sasiak iaz garbitu zituzten. Egun, 20 behor eta 100 ardi larratzen dira bertan, baina udako egunetan ez da urik egoten eta beharrezkoa da aska bat egitea. Larra-eren erdian aska bat jartzeko asmoa dago; aska burnizkoa izanen da, izotzari hobeki egokitzen zaiolako.

Lizarraga, Unanu eta Dorraorekin batzen dituen bideak ez zeuden onenean eta Unanu eta Dorrao arteko porlanezko pista hainbat tokitan zartatuta zegoen. Izan ere, bide gehienak orain dela 40 urte egin ziren eta geroztik ia ez da berritze lanik egin. Hori dela eta, arazoari irtenbidea bilatzeko, Kontzejuak eta Udalak zenbait batzar egin zituzten konpondu beharrekoa zehazteko. Guztia adostu zutenean, Udalak, Uharteko Arakilgo Lur Geroa, SL enpresari eman zion proiektua idazteko lana. Ondoren Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuan aurkeztu zen egitasmoa.



Embreado de caminos de acceso a los pueblos y mejora de infraestructuras ganaderas

Excavaciones Olloquiegui, S.A. es la encargada de asfaltar y reasfaltar las pistas entre Unanu y Lizarraga, Unanu y Dorrao, y Dorrao y Lizarraga; así como para reafirmar la pista principal de Leiza en Dorrao y para crear un punto de agua en el pastizal de Irura de Lizarraga. El proyecto pretende mejorar la comunicación entre las localidades y facilitar la labor de los ganaderos. Es un proyecto bianual y el presupuesto asciende a 299.555 euros. La financiación se llevará de la siguiente manera: el Gobierno de Navarra un 60%, los concejos 20% y el Ayuntamiento de Ergoiena 20%. La pretensión del Ayuntamiento es ejecutar los trabajos entre octubre del 2008 y abril del 2009, siempre y cuando la climatología lo permita.



311.370 euroko aurrekontua izanen du udalak 2009an

Ergoienako Udalak, azaroaren 27an egindako bilkuran, aurtengo aurrekontua onartu zuen. 311.370 euro izanen ditu udalak 2009an kudeatzeko. Inbertsioetan zatirik nabarmena udalerriko hirigintza plana berritzera bideratuko da, 50.600 euro.

Aprobación definitiva de presupuestos

El Pleno del Ayuntamiento de Ergoiena en sesión celebrada el día 27 de noviembre acordó probar el Presupuesto Único para el año 2009, así como las bases de ejecución del presupuesto.

No habiéndose producido alegaciones en el período de exposición pública, se entiende aprobado definitivamente y se procede a su publicación.

Ingresos

Cap. 1. Impuestos directos: 103.400
 Cap. 2. Impuestos indirectos: 30.000
 Cap. 3. Tasas y otros ingresos: 500
 Cap. 4. Transferencias corrientes: 115.800
 Cap. 5. Ingresos patrimoniales: 50
 Cap. 7. Transferencias de capital: 41.184
 Cap. 9. Pasivos financieros: 20.436
 Total ingresos: 311.370 euros

Gastos:

Cap. 1. Remuneraciones del personal: 94.500
 Cap. 2. Compra de bienes corrientes y de servicios: 50.450
 Cap. 4. Transferencias corrientes: 78.820
 Cap. 6. Inversiones reales: 87.600
 Total gastos: 311.370

Haur ordenantzaren kontura 1.800 euro banatu ditu udalak

Ergoienako Udalak jaiotzak eta errol-datzeak sustatzeko diru-laguntzak banatzeko ordenantza martxan du 2.002 urteaz geroztik. Ordenantzaren helburua da jaiotza tasa eta udalerraren populazioa handitzea. Iaz udalak hiru laguntza eman zituen. Haietako bi 700 eurokoak izan ziren, jaiotze berria familiako bigarren haurra zelako. Ergoienako Udalak eman zuen beste diru laguntza 400 eurokoa izan zen, lehen seme-alaba izan zuen familia batek jaso zuena.

Baldintzak

Diru-laguntza horiek jaso ahal izateko jaioberrien gurasoak Ergoienan errolatuak egon behar dute eta bertan bizi, gutxienez haurra jaiotze aurreko azken urtean. Haurra jaiotzearekin batera zehaztua dagoen diru-laguntza jaso ahal izateko gurasoek. Erditze anizkoitzen kasuan, dirulaguntza handiagoa izanen da. Adoptatutako umeen kasuan, umeak urtebete baino gutxiago badu, diru laguntza jaso ahal izango da. Hauek izanen dira diru laguntzaren zenbatekoak: lehendabiziko haurrarentatik 400 euroko diru laguntza, bigarren haurrarentatik 700 eurokoa, eta hirugarren haurrarentatik aurrera 1.000 euro bakoitzarentatik.



Gurasoek diru laguntzaren eskaera Ergoienako udaletxean egin behar dute, seme-alaba jaiotzen den urteko abenduaren 1-a baino lehen. Seme-alaba abenduan jaiotzen bada, eskaera hurrengo urtean egin behar dute. Eskaera guraso biek sinatu behar dute, eta guraso bakarreko familietan aski izanen da jaioberriarekin batera familia osatzen duen guraso bakarrak sinatzea. Horrekin batera, seme-alabaren edo seme-alabaren jaiotza-agiria aurkeztu beharko dute.

Ayudas para impulsar los nacimientos y empadronamientos

En el 2002 el Ayuntamiento aprobó un ordenanza para impulsar los nacimientos y empadronamientos y aumentar la población del valle. El año pasado entregó una ayuda de 400 por nacimiento de la primera hija o hijo y dos de 700 euros por nacimiento del segundo; en total 1.800 euros.